

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO

# Ingurumen Iraunkortasuna

## 2005ko TXOSTENA

*aurrera doan* **herria**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**Argitaraldia:**
2005ko ekaina

**©**
IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ibáñez de Bilbao, 28 - 8ª - 48006 Bilbao
Tel.: 94 423 07 43 / Faxa: 94 423 59 00
www.ihobe.net

**Argitaratzailea:**
IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

**Azalaren diseinua:**
Lankopi, S.A.

**Itzulpena:**
Elhuyar

**Azalaren argazkia:**
Archivo "Argazki" Eusko Jaurlaritza. Gobierno Vasco
Egileak: Mikel Arrazola

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

# Ingurumen Iraunkortasuna

## 2005ko TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## Edukia

Aurkezpena ........................................................................................... 3

Gertakari garrantzitsuak ............................................................................. 5

Konpromisoak betetzea: (i) 5 ingurumen-xede .............................................. 8

Konpromisoak betetzea: (ii) ezinbesteko 5 baldintza ..................................... 16

Aurreko txostenetako aholkuen betetze-maila ............................................. 23

2006rako erronkak: 2006-2010eko Ingurumeneko bigarren Esparru Programarantz .... 25

Azken oharrak ............................................................................................ 27

I. GEHIGARRIA: GIEIE-KO KONPROMISOEN BETETZE-MAILA ADIERAZTEN DUTEN KOADROAK ............................................................................................ 28

# *Aurkezpena*

1. EAEko ingurumena babesteko **3/98 Lege** orokorrak, seigarren artikuluan, hau dio: "EAEko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa batean islatuko da. Programa horrek lau urteko iraupena izango du, eta Eusko Jaurlaritzak onetsiko du eta ondoren Eusko Legebiltzarrera bidaliko da".

2. Lege-agindua betez, Gobernu Batzordeak **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta lehenengo Ingurumen Esparru Programa (2002-2006) onartu zituen** 2002ko ekainaren 4an, eta epe luzerako ikuspegi estrategiko batean txertatu zituen Lurraren Goi-bileran –Rio de Janeiron, 1992an– lurralde bakoitzean garapen iraunkorreko estrategiak egiteko hartutako konpromisoarekin lotuta.

3. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (hemendik aurrera GIEIE) **bost ingurumen-xede eta ezinbesteko bost baldintza** jarri ditu, eta EAEko Administrazio Publikoak lehentasunez sustatu beharko ditu. Xede eta baldintza horiek Garapen Iraunkorrerako Europako Batasunaren Estrategian eta Ingurumenaren alorreko EBko Ekintzarako Seigarren Programan azaldutakoekin koherentzia gordez ezarri dira. Hain zuzen ere, 137 konpromiso programatiko (jarduera zehatz batekin lotutako konpromisoak) eta 44 konpromiso kualitatibo (zenbakizko helburu jakin bati lotutako konpromisoak) hartu dira, eta esparru-programa hori indarrean dagoen bitartean jarri behar dira martxan. Horietako batzuk data jakin batzuetarako egin behar dira, eta besteak, berriz, etenik gabe gauzatzekoak dira. Beste konpromiso eta helburu kuantitatibo batzuk ere badaude, 2006a baino geroago bete beharrekoak.

4. 2002an GIEIE abian jarri zen, eta hartutako konpromisoen betetze-mailaren segimendu-txostena egiten da urtero. 2003. urtearen amaieran ingurumen-iraunkortasunari buruzko urteko **bigarren txostenak** adierazten zuen Estrategiak 2006rako markatutako konpromiso programatikoen **% 22** beteta zegoela, **% 67** gauzatze-fasean zegoela eta **% 11** hastear zegoela. Konpromiso kuantitatiboei dagokienez, % 73 2006rako bete daitezkeenak edo bete litezkeenak ziren, eta % 18 betetzen zaila zen.

5. 2004an Euskal Ingurumen Estrategia ezartzen jarraitu zuten, eta 2002-2006rako hartutako konpromiso programatikoen **% 31** beteta zegoen, **% 60** betetze-fasean eta **% 9** baino ez zegoen hasteko[1]. Konpromiso **kuantitatiboei** dagokienez, **% 70** bete daitezkeen edo bete litezkeen sailetakoak dira, baina **% 11** betetzen *zaila* da.

6. 2004aren amaieran bete beharreko helburuei dagokienez, ehunekoak handiagoak dira: programatikoetan **24 amaituta daude, eta 45 gauzatze-fasean daude**. 5 konpromiso kuantitatiboei dagokienez, berriz, 2004ko abenduaren 31n bakarra dago beteta.
7. Taula hauetan datu horiek laburbiltzen dira.

| Konpromisoak | Kuantitatiboak | Programatikoak | Guztira |
|---|---|---|---|
| 2003a amaitzerako bete beharrekoak | - | 39 | 39 |
| 2004rako | 5 | 36 | 41 |
| 2005erako | - | 7 | 7 |
| 2006rako | 31 | 34 | 65 |
| Konpromiso jarraituak* | 8 | 21 | 29 |
| ***Denbora-tarte osoa: 2002-2006*** | ***44*** | ***137*** | ***181*** |
| **GIEIEak guztira (2002-2020)** | **82** | **141** | **223** |

*Denbora-erreferentziarik gabeko konpromiso jarraituak

[1] Ikus eranskinean konpromiso bakoitzaren egoera banaka.

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurreratuta | Eginda | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | 6 | 6 | 12 | 15 | 39 |
| % | % 15 | % 15 | % 31 | % 38 | % 100 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 10 | 17 | 9 | 36 |
| % | % 0 | % 28 | % 47 | % 25 | % 100 |
| 2004-12-31 baino lehen bete beharreko konpromisoak guztira | 6 | 16 | 29 | 24 | 75 |
| % | % 8 | % 21 | % 39 | % 32 | % 100 |

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004-12-31 baino lehen bete beharreko konpromisoak guztira | - | 1 | 1 | 3 | 5 |
| % | - | % 20 | % 20 | % 60 | % 100 |

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK 2006an | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurreratuta | Eginda | |
| GUZTIRA | 12 | 33 | 49 | 43 | 137 |
| 2005eko txostena % | % 9 | % 24 | % 36 | % 31 | 100% |
| 2004ko txostena % | % 11 | % 47 | % 20 | % 22 | % 100 |
| 2003ko txostena % | % 20 | % 49 | % 21 | % 10 | % 100 |

| Konpromiso KUANTITATIBOAK 2006an | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| GUZTIRA | 5 | 9 | 22 | 8 | 44 |
| 2005eko txostena % | % 11 | % 20 | % 50 | % 18 | % 100 |
| 2004ko txostena % | % 18 | % 18 | % 55 | % 9 | % 100 |

8. Hartutako konpromisoak betetzea, ordea, txanponaren alde bat baino ez da. Hertsiki betetzea ez da gustura egoteko arrazoia aurreikusitako emaitzak ez badira lortzen aldi berean; hau da, proposatutako ingurumen-helburuak betetzen ez badira. Horien segimendua beste txosten batean egin badaiteke ere, garrantzitsua da ondorio nagusiak mahaigaineratzea.

9. Kontua da ingurumen-adierazleek argilunak dituztela helburu horietako askotan. Hobekuntza agerikoa da itsasertzeko eta ibaietako uren kalitatean. Bestalde, zenbait egoeratan hobekuntzaren bat egon arren, airearen kalitateari buruzko datuak hartutako konpromisoetatik urrun daude. Aurrera egin da lurzoru poluituen berreskuratzean, hondakinen kudeaketan eta energia-eraginkortasunean. Baina guztizko kontsumoak gero eta handiagoa izaten jarraitzen du. Babestutako eremua handitu da, baina espezie eta habitat batzuek okerrera egiten dute. Ibilgailu pribatu bidezko garraioa nagusi da garraio-moduen artean, eta klima-aldaketaren aurkakako gure ekarpena, oraingoz, negatiboa da.

10. Horrenbestez, 2004ko txostenean ondorioztatu bezala, azpimarratu behar da ezarritako **helburuak** lortzeko dugun bidea luzea dela. Aurreratzeko erritmoa bizkortzeko, neurri berriak eta tresna eraginkorragoak sartu behar dira eta eragile guztien **ahaleginak bikoiztu** behar dira (Administrazio Publikoa, sektore pribatua eta herritarrak).

## *Gertakari garrantzitsuak*

11. Azken urteko gertakaririk garrantzitsuena nazioartean, zalantzarik gabe, 2005eko otsailaren 16an **Kyotoko konpromisoa indarrean sartzea** izan da. Protokoloak 2008 eta 2012 bitartean $CO_2$-aren batez besteko emisio-maila jakin bat lortzera behartzen ditu herrialde sinatzaileak; hots, 1990eko emisioen maila baino % 8 gutxiagokoa. Espainiaren kasuan, betebehar global horrek emisioen hazkuntza % 15era **mugatzea** adierazten du, 1990ekoekin alderatuta.

    EAEri buruzko zifrek arriskuan jartzen dute Kyotoko Protokoloa betetzeko gure ekarpena. Izan ere, 2003ko datuen arabera, Euskadik 1990eko maila baino % 28 gehiago isurtzen du, eta ia bikoiztu egin du emisio-bolumena 1990etik hona. **Energia-sektorea eta garraio-sektorea** dira emisio gehien dituztenak; bien artean guztizkoaren % 56 osatzen dute.

12. Bigarren gertakari garrantzitsua ingurumen-erantzukizunari buruzko 2004/35/CE[2] zuzentaraua onartzea izan da. Haren bidez, kalteak jasandako pertsona fisiko edo juridikoak, legeriak jasotako eskubide bat urratu izana alegatu duenak edo nahikoa interesa duenak agintari eskudunari eska diezaioke kaltea eragin duen eragilearen aurka egin dezan ingurumena zaintzeko eta kontserbatzeko, zuzenean berak egin gabe.

13. Protokoloa indarrean sartzeak eta haren aldaketak eraginda, ingurumenari buruzko albisteek komunikabideetan oro har, eta, prentsa ekonomikoan zehazki, **geroz eta protagonismo handiagoa** hartu dute, eta, ondorioz, modu *naturalean* sartu dira politikoki zuzena den hizkeran. Protagonismo horrek garrantzi handiena hartzen du Euskadiren etorkizuna baldintzatzen duten eta benetako bidegurutzean kokatzen gaituzten **azpiegitura-proiektu handiak** aztertzeko unean.

14. Komunikabideetan duen protagonismoarekin batera, gero eta informazio gehiago ematen zaie herritarrei eta gero eta gehiago jabetzen dira gaien garrantziaz. Hala adierazten dute bai 2004ko Ekobarometro Sozialak, bai 2005eko Industria Ekobarometroak. Egoera hori sortzen laguntzea GIEIEren zeregin garrantzitsua da, ekoizte- eta kontsumo-ereduak –txanponaren bi aldeak– ezin baitira aldatu gizarteak aktiboki, errebindikatiboki, parte hartu gabe, iazko segimendu-txostenean gogorarazten zen bezala.

15. Orduan bezala, azpimarratu behar da **Tokiko Agenda 21** egiten ari diren udalerrien kopurua handitzen ari dela. Tokiko Agenda 21 GIEIEren helburuetako bat da, eta betetze-maila oso positiboa da. Egun, **190 udalerri Tokiko Agenda 21en prozesuetan daude**; hau da, EAEko herritarren % 90 baino gehiago. Agendak egiteko prozesuan oso aurreratuta dauden udalerriak **Udalsarea 21**en barruan sartzen ari dira (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea). 2005eko otsailean jada 66 udalerri zeuden sartuta. **Eskolako Agenda 21**ak pixkanaka martxan jartzen ari direla ere aipatu behar da. Guztira **45.000 ikasleri** klasea ematen zaien **130 ikastetxetan** ezarri dira jada.

16. Udalerrietan modu nabarmenean bat egiten dute ekoizte- eta kontsumo-moduen iraunkortasunean eragina duten alderdiek. Horregatik da garrantzitsua lurralde-antolamenduaren plangintza; aurrera egiten ari da lurralde-plan partzialak eta sektorialak egiten, eta horietan pixkanaka ari da sartzen iraunkortasunaren ikuspegia eta filosofia.

[2] Estatu espainiarreko legedira ekartzeko.

17. Europako Batzordeak **Natura 2000 Sareari** buruzko EAEren proposamena onartu izana urteko beste jarduera garrantzitsuenetako bat da. Horren arabera, EAEko gainazal osoaren % 20 Sarearen barruan geratuko litzateke.

18. **Hondakin-uren saneamendurako azpiegituren** inbertsioek ere jarraitzen dute. Hala, uraren tratamenduaren zikloa itxi eta **2000/60 Zuzentaraua** bete ahal izango da. Egun, EAEko **biztanleen % 90i** ekartzen dizkiete onurak jarduera horiek.

19. Legediari buruzko gertaera garrantzitsuen artean, aipatzekoa da**1/2005 Legea, lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzekoa,** onartu izana. Hala ere, oraindik onartzeko daude garrantzi handiko bi lege-proiektu: alde batetik, **Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legea** –proiektuak ez zuen Legebiltzarraren gehiengoaren onespena jaso–, eta bestetik, **Uren Legea** –Legebiltzarreko izapideak amaitu baino lehen legealdia amaitu zen–.

20. **Ingurumena Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Plana (2003/2007)** abian jarri izana ere azpimarratu behar da. Plan horri esker, 2007. urterako, poluzio-ahalmen handieneko jarduerei buruzko arauak beteko dira. Jarduera horiek zainketa-sarean arazoak atzemandako guneetan egingo dira, baita legeria ez betetzeko joera dutela ikusten den arloetan ere, betiere ingurumen-eragin nabarmena badute.

21. Eusko Jaurlaritzaren jarduera-esparruan **ingurumen-ikuspegia** plan eta programa guztietan sartzeko ahaleginak egiten ari dira. Horretarako lagungarria da, gainera, **Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren** (IIEB) prozedura aplikatzea. Ebaluazioa 2003ko uztailean dekretu bidez onartu zen, eta politika eta programa sektorialetan aplikatzen ari da, eta bereziki, eragin handiko sektoreetan, adibidez, nekazaritzan, lurralde-antolamenduan, garraioan eta industrian.

22. Ildo horretan egindako beste urrats garrantzitsu bat **Euskadiko Energia Estrategia 2010** onartzea da. Estrategian energia aurreztearen, energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarriak erabiltzearen alde egiten da Kyotoko Protokoloak ezarritako helburuak lortzeko. EAEko ekonomiaren karbono-intentsitatea murrizteko, zentral termiko tradizionalen ordez gasifikatzeko eta ziklo konbinatuko instalazioak ezartzeko apustu tinkoa egiten du.

23. Ingurumen- eta iraunkortasun-gaietako **sailen arteko koordinazioari** dagokionez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila 2004an hainbat sailekin aritu da lankidetzan: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin, ***Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumo Planaren (2005-2010)*** zirriborroa egiten; Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarekin, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin ***Eraikuntza Iraunkorraren Gida*** eta ***Eraikinak Balioztatzeko Kodea*** idazten; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, **Eskolako Agenda 21** eta ikastetxeetako ingurumen-ziurtagiriak sustatzen; eta Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin **karbonoaren adierazleekin eta hustubideekin lotutako txostenak** egiteko Hitzarmenean.

24. Ingurumen-datuek okerrera egin dute, eta berriro ere garraioan jarri behar dugu arreta. **EAEko eta Europako ingurumen-arazorik handienetakoa da garraioa**. Sailak egin berri duen azterketa batek adierazten du garraioak sortutako kanpo-eraginen balio ekonomikoa 3.500 milioi €-koa dela; EAEko BPGren % 8,6 litzateke. Zehazki, errepideko garraioak sortzen ditu ia gastu horiek guztiak (% 95).

    Legeetan aurrera egiten da (maiatzaren 21eko **Euskal Trenbide Sareari buruzko** 6/2004 Legeak, EAEko trenbide-azpiegituren erakunde publiko kudeatzailea sortu du), baina ez nahikoa mugikortasunaren kudeaketan (udalerri eta eskualde askotan azterketak egiten ari dira, batez ere Gipuzkoan) edo trenbide-azpiegituren garapenean, eta horiek ingurumenean askoz eragin gutxiago duen garraiobide hori

sustatzeko balioko dute. Garraiobideen arteko koordinazioak ez du behar bezain azkar egiten aurrera (lurraldeko garraio-agintariak sortzea, garraio-txartel bakarra izatea, etab.), eta bestelako alternatiba interesgarri batzuek (esate baterako, itsasoko autobideak) oraindik ez dute aurretiko azterketen fasea gainditu. Hala ere, arazoak konpontzea bizkortu duten foro eta behatokiak sortzeko urrats garrantzitsuak egin dira.

25. EAEko Administrazioa nazioarteko proiektuetan parte hartzen aritu da, ingurumen-proiektuetan; eta horrek eragin nabaria izan du garapenerako lankidetza-programetan eta **Garapen Iraunkorrerako Eskualdeetako Gobernuen Sarean (nrg4SD),** gero eta gehiago parte hartzen baitu sare horretan. Sarearen lehendakaritzaren eta idazkaritzaren ardura Eusko Jaurlaritzari egokitu zitzaion hurrengo hiru urteetarako, martxoan Sumatran egindako I. Batzar Nagusian.

26. Azkenik, enpresaren eremu pribatuan, pozik egoteko arrazoia da **Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak** hedatu izana poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuei (IIPC) buruzko 61/96/EE Arteztarauak eragiten dien EAEko industria-sektoreekin. Orain arte, **sektorekako zazpi hitzarmen** sinatu dira, sektore hauekin: altzairua, zementua, kimika, papera, galdaketa, hondakinen kudeatzaileak eta beira, zeramika eta karea. 2005ean, berriz, nekazaritza eta abeltzaintzako eta gainazalak tratatzeko sektoreekin hasi dira hitzarmenak.

27. Bestalde, hedatzen jarraitzen dute enpresetako jardunbide egokiek; enpresa askok dute ingurumena kudeatzeko ziurtagiriren bat (692 enpresak ISO 14001 edo EMAS dute), eta beste 524 enpresak ingurumena hobetzeko **Ekoscan** programa egin dute**.** Horrez gain, orain **iraunkortasunari buruzko memoriak** egin behar dituzte.

28. EAEko enpresek ingurumen-irizpideak onartzeko balorazio positibo horrek bat egiten **Fundación Entornok** *Informe sobre la Gestión Ambiental en la Empresa Española* (Espainiako enpresetako ingurumen-kudeaketari buruzko txostena) txostenean aurkeztutako ebaluazioarekin. **Indizean balio handiena** lortu duen erkidegoa EAE dela adierazten du txostenak. Indize horren bidez, enpresak ingurumenarekiko duen **jarrera-konpromisoa** neurtzen da. Eragile sozialei dagokienez, GKEen parte-hartzea asko handitu da ingurumen-proiektuen aurkezpenean. 2004an irabazi-asmorik gabeko 35 erakunderen 82 proiektu finantzatu ziren, 750.000 eurorekin.

## *Konpromisoak betetzea: (i) 5 ingurumen-xede*

29. Oro har, GIEIEk 2006rako hartutako bost ingurumen-xedeetarako markatutako helburuak betetzen egindako aurrerapena **positiboa** da. Hala, konpromiso programatikoen % 66 bete dira edo gauzatze-fase aurreratuan daude; iaz, kopurua % 44koa zen. Atal hauetan xedeak banaka aztertzen dira.

| 2006rako konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurreratuta | Eginda | |
| 1. xedea | 1 | 6 | 9 | 7 | 23 |
| 2. xedea | - | 1 | 6 | 5 | 12 |
| 3. xedea | 3 | 6 | 12 | 6 | 27 |
| 4. xedea | 3 | 7 | 4 | 5 | 19 |
| 5. xedea | - | 4 | 4 | 3 | 11 |
| Ingurumen Xedeak GUZTIRA | 7 | 24 | 35 | 26 | 92 |
| Ingurumen-iraunkortasunari buruzko 2005eko txostena % | % 8 | % 26 | % 38 | % 28 | % 100 |
| Ingurumen-iraunkortasunari buruzko 2004ko txostena % | % 11 | % 48 | % 20 | % 22 | % 100 |

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak | Egin litezkeenak | Egin daitezkeenak | Daturik ez | |
| 1. xedea | 1 | - | 5 | - | 6 |
| 2. xedea | 3 | 3 | 6 | 1 | 13 |
| 3. xedea | - | - | 2 | - | 2 |
| 4. xedea | 1 | - | 3 | 3 | 7 |
| 5. xedea | - | - | 1 | - | 1 |
| Ingurumen Xedeak GUZTIRA | 5 | 3 | 17 | 4 | 29 |
| % IIT 2005 | % 17 | % 10 | % 59 | % 14 | % 100 |
| % IIT 2004 | % 10 | % 17 | % 59 | % 14 | % 100 |

## *1. xedea: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea*

Estrategiak, **1. xedean,** helburu hauek ezartzen ditu:

- Ingurumenera isurtzen diren substantzia arriskutsuen eta poluitzaileen emisioak murriztea.
- Ingurumenaren kalitatea hobetzea

30. 1. xedeak 23 konpromiso programatiko jasotzen ditu[3]. Hau da konpromiso horien egoera:

[3] 1. eranskinean konpromiso bakoitzaren egoera banaka ikus daiteke

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | 1 | 1 | 1 | | 3 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 2 | 4 | 4 | 10 |
| 2006rako konpromisoak | - | 3 | 3 | 1 | 7 |
| Konpromiso jarraituak* | - | - | 1 | 2 | 3 |
| **1. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **1** | **6** | **9** | **7** | **23** |
| **% IIT 2005** | **% 4** | **% 26** | **% 39** | **% 30** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 17** | **% 39** | **% 35** | **% 9** | **% 100** |

31. Bestalde, 1. xedean 6 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 3 | - | 3 |
| Konpromiso jarraituak | 1 | - | 2 | - | 3 |
| **1. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **1** | **-** | **5** | **-** | **6** |
| **% IIT 2005** | **% 17** | **-** | **% 83** | **-** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **-** | **% 17** | **% 67** | **% 17** | **% 100** |

32. **1. xedean**, aurrerapenak lortzen ari dira ezarritako konpromisoen betetze-mailan. Baina, **airearen kalitate-indizeak eta poluitzaileen emisioen indizeak joera kezkagarria dute**. Horrenbestez*:*

- **Atmosferaren egoerak erne egoten jarraitzea eskatzen du**; izan ere, 1990 eta 2002 bitartean, substantzia azidotzaileen eta troposferako ozonoaren aitzindarien emisioak % 7 eta % 1 igo ziren, hurrenez hurren. $NO_x$, $SO_2$ eta COV emisioak ere igo ziren 2002an ($NO_x$ % 10 gehiago, $SO_2$ % 18 gehiago eta COV % 5 gehiago). Hala ere, 2004ko datuek egoerak hobera egingo duela adierazten dute.
- **2004an airearen kalitatea pixka bat hobetu zen.** Partikulen ($PM_{10}$) kontzentrazioari dagokionez, 2003an, 22 estaziotan gainditu zen (35 aldiz, gutxienik) giza osasuna babesteko eguneko batez besteko balioa. Baina, 2004an 21 estaziotan gainditu zen. $PM_{10}$-aren batez besteko bilakaera historikoari dagokionez, 2003an jaitsi egin zen, 27 mikrogramo metro kubiko izatetik, 26ra izatera. Baina balio hori 2002koa baino handiagoa da, 2002an EAEko batez bestekoa 24 mikrogramo/metro kubiko baitzen. Azkenik, 2003an, 33 aldiz gainditu zen herritarrei alerta emateko muga, eta 2004an, berriz, ez zen inoiz gainditu.

33. Egoera horri aurre egiteko, EPER erregistroa modu eraginkorrean ezartzeko lan egin da. Erregistro horrek poluitzaileen emisioak (NOx, $NH_3$ eta COrenak) **prebenitzeko eta kontrolatzeko** estrategia izateko aukera ematen du (2003an bukatu nahi zen), eta, hori oinarri hartuta, parte hartzen duten sektore nagusiekin **Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak** sinatzen ari gara.

34. Bestalde, aipatzekoa da airearen kalitatea ebaluatzeko azterketa egin izana 2003an eta 2004an EAErako, eta **EAEko 13 udalerritan jarduera-plan zehatzak** abian jartzeko beharra ikusi zela, 1073/2002 Errege Dekretuko 6. artikuluaren arabera. 2005eko azarorako plan horiek amaitzea aurreikusten da.

35. **Lurzoruaren Poluzioa Prebenitzeko eta Zuzentzeko 1/2005 Legea, otsailaren 4koa,** behin betiko onartu izana ere bete den konpromisoa da. Legearen helburua da lurzoruan aldaketa berriak ager daitezen saihestea, kasu larrienei konponbidea ematea, eta, azkenik, epe ertainera eta luzera heredatutako lurzoru poluituei konponbidea ematea planifikatzea. Ildo horretan, positiboa da **lurzoru poluituen berreskuratzean egiten ari den aurrerapena**: 1990etik 2003ra, poluituta egon zitezkeen 534 hektarea lurzoru (136 leku) ikertu ziren, eta 211 hektarea (66 leku) berreskuratu ziren. 2004an, lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko joerak gorantz segitu zuen. Azkenik, azpimarratu behar da nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak *ad hoc* abian jarri direla higatzeko arriskua duten laborantza-lurretako lurzoruak babesteko, EAEko higadura kontrolatzeko eta prebenitzeko plana etorkizunean diseinatzeari begira.

36. Urari dagokionez, EAEn 2000/60 Zuzentaraua ezartzeko behar diren lanak gauzatzen jarraitzen dute, **Hondakin-uren saneamendurako azpiegituretan** inbertsioak eginez. Horregatik, *2004ko adierazleetako* datuen arabera, 2000tik 2003ra, **ibaietako uren kalitatea hobetu egin da, oro har**: 2000an, estazioen % 15ek lortu zuten kalifikazio ona; 2003an, berriz, estazioen % 51k. Gaur egun, hala ere, **zenbait zati egoera txarrean daude** (Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oria ibaien arroak). Estuarioko eta kostaldeko urei dagokienez, egonkortzea edo hobekuntza arina nabari da. 2003ko kanpainan estazioen % 37k lortu zuen 'poluitu gabe' kalifikazioa, eta, 1998an, % 20k.

37. Azkenik, aipatu behar da **zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioari buruzko azterketa-diagnostikoa** eta horri buruzko estrategia bukatuko direla laster.

38. *Oraindik hasteko dago behe-maiztasuneko (50 Hz) eremu elektromagnetikoen eta irrati-maiztasunen esposizio-mailen gutxi gorabeherako azterketa eta haiek murrizteko plana* egiteari buruzko konpromisoa.

## *2. xedea: Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua*

Estrategiak, **2. xedean,** helburu hauek ezartzen ditu:

- Baliabideen kontsumoak eta horren ondorioek ingurumenaren karga- eta birsorkuntza-ahalmena gaindi ez dezaten saiatzea, eta hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabileraren arteko bereizketa lortzea.
- Azken hondakin gutxiago sortzea, eta hazkunde ekonomikoaren eta hondakin-produkzioaren arteko bereizketa lortzea jatorrian prebentzioa ezarrita.
- Azken hondakinak modu seguruan eta denbora laburrean kudeatzea.

39. 2. xedeak 12 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | 3 | 3 | 6 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 1 | 2 | - | 3 |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 1 | - | 1 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | 2 | 2 |
| **2. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **-** | **1** | **6** | **5** | **12** |
| **% IIT 2005** | **-** | **% 8** | **% 50** | **% 42** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **-** | **% 42** | **-** | **% 58** | **% 100** |

40. Bestalde, 2. xedean 13 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| **Konpromiso KUANTITATIBOAK** | **Lortzeko aurreikuspena** | | | | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Zailak** ☹ | **Egin litezkeenak** 😐 | **Egin daitezkeenak** ☺ | **Daturik ez** | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | | - |
| 2006rako konpromisoak | 3 | 2 | 6 | - | 11 |
| Konpromiso jarraituak | - | 1 | - | 1 | 2 |
| **2. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **3** | **3** | **6** | **1** | **13** |
| **% IIT 2005** | **% 23** | **% 23** | **% 46** | **% 8** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 15** | **% 15** | **% 62** | **% 8** | **% 100** |

41. **2. xedeak** du konpromisoen betetze-maila handiena, ezarritako konpromiso guztiak hasita baitaude, eta, ia erdia, gauzatuta. Bestalde, oraindik ez dugu azken helburua lortu: ***baliabideen kontsumoa ekosistemen karga-ahalmena baino handiagoa ez izatea eta hondakin gutxiago sortzea.*** Hona hemen gai horri buruz 2004ko adierazleen txostenean jasotako datu batzuk:

- EAEko etxebizitzetan, biztanle bakoitzak 130 litro **ur kontsumitzen** ditu egunean.
- **Energiaren guztizko kontsumoa** % 26 hazi zen 1990-2002 epean. 2002an, % 1,5 egin zuen gora aurreko urtearekiko.
- 1990 eta 2002 bitartean, **materialen guztizko kontsumoa** % 27 hazi zen: 1990ean, biztanleko 75 tona kontsumitzen zen, eta 2002an, 96 tona.
- 1994tik 2004ra, % 20 handitu da **lurzoru artifizializatuaren azalera**.
- 1998tik 2003ra bitartean, % 15 handitu zen **hiri-hondakinen** kopurua. 2003an, 588 kg hiri-hondakin sortu zen biztanleko; hots, 2002an baino 9 kg gehiago (% 1,62). 2002an, 335.634 tona **hondakin arriskutsu** sortu ziren; hots, 2001ean baino % 4,68 gehiago.

42. Baliabideen kontsumoa handitu arren, **eraginkortasun-hobekuntza handiak lortzen ari dira baliabideen erabileran**. Hala,

- 1990-2002 aldian, baliabide materialen kontsumoaren eraginkortasuna % 14 hazi zen.
- 1990-2002 bitartean, energia-intentsitatea % 13 murriztu da.
- 1990-2002 aldian, baliabide materialen kontsumoaren eraginkortasuna % 14 hazi zen.
- 1998 eta 2003 bitartean, zabortegietan uzteko hiri-hondakinen ehunekoa 13 puntu jaitsi zen (1998ko % 81etik 2003ko % 68ra). Hondakin arriskutsuei dagokienez, 2002an hondakin arriskutsu inbentariatuen % 100 kudeatu ziren (1994an, % 72), eta % 45 balorizatu ziren (1994an, % 28, eta 2001ean, % 38).

43. Hondakinen kudeaketaren alorrean, **EAEko hiri-hondakinen plana** egin berri da eta hiru gida ere egin dira: erabiltzen ez diren ibilgailuak tratatzeko; eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak tratatzeko; eta ekipo elektrikoak eta elektronikoak tratatzeko.

48. Hala ere, azken hogei urteetan, **okerrera egin dute** nekazaritza-sistemetako hegaztiek eta arrain kontinental batzuek, kostaldeko estuarioek eta baso autoktonoen zatikatzeak eta konektagarritasunak.

49. Horiek gauzatzeko epea 2006 artekoa den arren, **bi konpromiso oraindik abian jartzeke daude.** Batetik, **EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoan** katalogatutako eremuak babestu eta berreskuratzeko plan espezifikoak egitea; katalogoa amaitzearen mende geratzen dira plan horiek. Bestalde, kolonizatzaileak eta inbaditzaileak izateko aukera duten landaretzako eta faunako espezie exotikoak kudeatzeko planak egitea.

## *4. xedea: Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua*

Estrategiak, **4. xedean,** helburu hauek ezartzen ditu:

- Lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea.
- Hainbat erabilera eta jarduera gauzatzeko (etxebizitzak, jarduera ekonomikoak eta aisialdikoak) garapen iraunkorra ahalbidetzen duen irisgarritasuna lortzea.
- Hazkunde orokortuko garapen ekonomikoa baliabide motorizatuen bidezko garraioaren eskaeratik bereiztea.

50. 4. xedeak 14 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | 1 | 1 | - | - | 2 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | | 1 | | 2 | 3 |
| 2005erako konpromisoak | 2 | 1 | 3 | 1 | 7 |
| 2006rako konpromisoak | - | 2 | 2 | - | 4 |
| Konpromiso jarraituak | - | 1 | - | 2 | 3 |
| **4. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **3** | **7** | **4** | **5** | **19** |
| **% IIT 2005** | **% 16** | **% 37** | **% 21** | **% 26** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 11** | **% 53** | **% 21** | **% 16** | **% 100** |

51. Bestalde, 4. xedean 7 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2005erako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 3 | 2 | 5 |
| Konpromiso jarraituak | 1 | - | - | 1 | 2 |
| **4. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **1** | **-** | **3** | **3** | **7** |
| **% IIT 2005** | **% 14** | **-** | **% 43** | **% 43** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 14** | **% 14** | **% 43** | **% 29** | **% 100** |

52. **4. xedean,** konpromisoen betetze-mailakoa apala da, batez ere, **garraioarekin** lotura zuzena dutenena. Hala, oraindik ez da hasi EAEn motorrik gabeko garraioa sustatzeko estrategia integrala garatuko duen konpromisoa.

## *3. xedea: Natura eta biodibertsitatea babestea.*

Estrategiak, **3. xedean,** helburu hauek ezartzen ditu:

- Ekosistemak, espezieak eta paisaia kontserbatzea eta babestea.
- Ekosistemak eta espezieak haien ingurune naturalean leheneratzea, baita paisaiak ere.
- Biodibertsitateari buruz ikertzea eta sentsibilizatzea.

44. 3. xedeak 27 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | | 2 | 1 | 2 | 5 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | | 2 | 5 | 1 | 8 |
| 2006rako konpromisoak | 3 | 2 | 6 | - | 11 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | 3 | 3 |
| **3. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **3** | **6** | **12** | **6** | **27** |
| **% IIT 2005** | **% 11** | **% 22** | **% 44** | **% 22** | **% 100** |
| **% ISA 2004** | **15%** | **52%** | **15%** | **19%** | **100%** |

45. Bestalde, 3. xedean 2 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 2 | - | 2 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **3. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **-** | **-** | **2** | **-** | **2** |
| **% IIT 2005** | **-** | **-** | **% 100** | **-** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **-** | **% 50** | **% 50** | **-** | **% 100** |

46. **3. xedean** ere, konpromisoen betetze-maila positiboa da. 2004an egindako ekintzen artean, nabarmentzekoak dira **Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartu izana**[4] eta **Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialari hasierako onespena eman izana**. Era berean, azpimarratu beharrekoa da **Eremu Sentikorren Katalogoa** (3/1998 Legearen aplikaziorako) eta beste zenbait kartografia-mota eta inbentarioak egin izana, betiere Europako Batasunerako interesa duten habitatekin, paisaia bereziekin... lotuta. Azkenik, **Urdaibai Biosfera Erreserbako Artadi Kantauriarren Lurraldeko Ekintza Plana** eta **Aizkorri-Aratz eta Armañon Parke Naturalak** behin-behingoz onartzea jasotzen dira.

47. **Baso-ziurtagirien sistemei** dagokienez, 2004ko maiatza bitartean, 28.000 hektarea baso-azalera antolatu dira irizpide horien arabera. Sistema horren bidez, EAEko basoak modu iraunkorrean kudeatzen direla bermatzen da.

[4] 2004ko azaroaren 19ko EHAA.

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | 2 | 1 | 2 | 2 | 7 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 1 | 2 | 1 | 4 |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 1 | - | 1 |
| Konpromiso jarraituak | 1 | 1 | 1 | - | 3 |
| **Konpromisoak guztira 2. E.B. (2002-2006)** | **3** | **3** | **6** | **3** | **15** |
| **% IIT 2005** | **% 20** | **% 20** | **% 40** | **% 20** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 13** | **% 40** | **% 33** | **% 13** | **% 100** |

67. Bestalde, ezinbesteko 2. baldintzan konpromiso kuantitatibo bakar bat jasotzen da. Hau da konpromiso horren egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | 1 | - | - | 1 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 2. E.B. (2002-2006)** | **-** | **1** | **-** | **-** | **1** |
| **% IIT 2005** | | **% 100** | | | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | **% 100** | | | **% 100** |

68. Indarrean dagoen **legedia hobetzeari** eta aplikatzeari dagokionez, akordioak betetzeko premia azpimarratu behar da, gero, baliabide kritikoei **(Uren Legea)** edota bereziki urriak direnei **(Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legea)** eragiten dieten funtsezko legeak baitatoz. Azpimarratu behar da, alderdi positiboekin ari garela, **Ingurumen-ikuskaritzako eta –kontroleko Plana 2003-2007** onartu zuela Gobernu Kontseiluak 2004ko azaroaren 23an, eta **Lurzoruaren Poluzioa Prebenitzeko eta Zuzentzeko 1/2005 Legea** onartu zela.

69. **Lankidetza publiko-pribatuaren** aldetik, nabarmen dezagun lehenago azaldutako **borondatezko zazpi ingurumen-akordioen** garapena.

70. Horrez gain, 2004an, ETEei ingurumen-legedia betetzen laguntzeko programa ezarri da, hots, **Legescan Programa Sektoriala,** eta, gainera, **EAEko industriarentzako Ingurumen Legeriaren Eskuliburua** eguneratu da.

71. 2004a baino lehen gauzatzekoak ziren **bi konpromiso**, baina oraindik **ez dira abian jarri:**

- 2003tik aurrera ingurumen-informazioaren kopia berehala egin eta baliabide elektronikoen bidez zabaltzeko sistemak garatzea, informazioa jendaurrean jartzeko garaian.
- 2003tik aurrera ingurumen-eraginaren ebaluazioen irismenari eta xedeei buruzko arauak egitea, hainbat jarduera-motatarako.

53. **Lurraldearen antolamenduari** dagokionez, Estrategian aurreikusitako lurralde-plan partzial eta sektorial guztiak izapidetze-prozesuetan daude, pixka bat atzeratuta badaude ere. Salbuespena dira baliabide turistikoen, EAEko portuen eta harrobiak egin daitezkeen guneen lurralde-plan sektorialak, ez baitira izapidetzen hasi. Horrenbestez,

- Lurralde-plan partzialez ari garela:
    - 5 lurralde-plan partzial behin betiko onartzea: Arabako erdigunekoa, Guardiakoa –Arabako Errioxa–, Laudiokoa, Deba Garaikoa eta Deba Barrenekoa.
    - Laster onartuko dituzte behin betiko Bilbo Metropolitarreko eta Urola-Kostako lurralde-plan partzialak.
    - Goierriko Lurralde Plan Partzialari hasierako onespena ematea
    - Gainerako lurralde-plan partzialak aurreratze-fasean daude.

- Lurralde-plan sektorialez ari garela:
    - EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzea.
    - Jarduera Ekonomikoen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzea.
    - Itsasertzaren Lurralde Plan Sektorialari hasierako onespena ematea.
    - Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialari hasierako onespena ematea.
    - IIEBaren azterketa Etxebizitzen Sustapen Publikoaren Lurralde Plan Sektorialean.
    - Kultura Ondarearen Lurralde Plana aurreratze-fasean dago.

## *5. xedea: Klima-aldaketaren gaineko eragina mugatzea*

Estrategiak, **5. xedean,** helburu hauek ezartzen ditu:

- Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio atmosferikoak murriztea 2020rako.
- Karbono-hustubideak gehitzea.

54. 5. xedeak 10 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | 3 | - | 3 |
| 2006rako konpromisoak | - | 3 | 1 | - | 4 |
| Konpromiso jarraituak | - | 1 | - | 3 | 4 |
| **5. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **-** | **4** | **4** | **3** | **11** |
| **% IIT 2005** | **-** | **% 36** | **% 36** | **% 27** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | **% 55** | **% 18** | **% 27** | **% 100** |

55. Bestalde, 5. xedean konpromiso kuantitatibo bakar bat jasotzen da. Hau da konpromiso horren egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| Konpromiso jarraituak | - | - | 1 | - | 1 |
| **5. xedeko konpromisoak guztira (2002-2006)** | **-** | **-** | **1** | **-** | **1** |
| **% IIT 2005** | | | **% 100** | **-** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | | **% 100** | **-** | **% 100** |

56. **5. xedean,** kezkagarria da $CO_2$-aren emisioek gure **helburuetatik urrun jarraitzea**. Hala, 1990etik 2003ra, berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien zuzeneko emisioak % 28 igo ziren EAEn. 2003an, guztira 19,4 milioi tona $CO_2$ baliokide isuri ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, 2002ko zifraren pareko. Pertsona bakoitzeko, zifra horiek EBko eta Espainiako batezbestekoa gainditzen dute, EAEn industriak pisu erlatibo handiagoa baitu. Hala ere, 2003/87 Zuzentarauak eragiten dien industria-sektoreek banakako emaitza hobeak dituzte EAEn Estatuan baino[5].

57. Egoera kezkagarri horretan, Eusko Jaurlaritzak **2010erako Euskadiko Energia Estrategia** diseinatu du. Estrategian apustua egiten da energia-kontsumitzaileen sektore guztietan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko programak indartzeko eta energia berriztagarrien garapena sustatzeko. Hala, Kyotoko Protokoloan ezarritako ingurumen-helburuak lortzen lagunduko du. Bestalde, **Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Ingurumen eta Energia Plan Gidatzailea** onartu da, baita udalerrietako energia-plan ugari ere.

58. Emisio barreiatuak egiten dituzten sektoreez ari garela, nabarmentzekoa da **Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumo Plana (2005-2010)** egin izana. Gobernuak kontsumitzaileei zuzenduta egiten dituen ekintza guztiak koordinatzeko egin da plan hori, eta helburu hauek ditu: jardueren berri ematea herritarrei, kontsumo iraunkorragoa egiteko heztea eta sentsibilizatzea eta horrekin bat datozen produktuak merkaturatzea gutxika-gutxika.

59. Bestalde, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin elkarlanean, $CO_2$-ak EAEko lurretan izandako finkapen-eboluzioa aztertzeko lan bat egin du. Lan hori **EAEko $CO_2$-aren hustubideen kuantifikaziorako lehen hurbilketa da.**

[5] Hala jaso zuen Eusko Jaurlaritzak iazko uztailaren 13an, "Eusko Jaurlaritzaren jarrera emisio-eskubideen esleipen-planari dagokionez" lanean.

## *Konpromisoak betetzea: (ii) ezinbesteko 5 baldintza*

60. Oro har, GIEIEk 2006rako hartutako bost ezinbesteko baldintzetarako markatutako helburuak betetzen egindako aurrerapena **positiboa** da. Hala, konpromiso programatikoen % 72 bete dira edo gauzatze-fase aurreratuan daude; iaz, kopurua % 44koa zen.

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurreratuta | Eginda | |
| 1. E.B. | - | - | 2 | 4 | 6 |
| 2. E.B. | 3 | 3 | 6 | 3 | 15 |
| 3. E.B. | - | 1 | 1 | 2 | 4 |
| 4. E.B. | 2 | 5 | 3 | 7 | 17 |
| 5. E.B. | - | - | 2 | 1 | 3 |
| Ezinbesteko Baldintzak GUZTIRA<br>% IIT 2005 | 5<br>% 11 | 9<br>% 20 | 14<br>% 31 | 17<br>% 38 | 45<br>% 100 |
| % IIT 2004 | % 11 | % 44 | % 20 | % 24 | % 100 |

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 1. E.B. | - | - | 1 | 1 | 2 |
| 2. E.B. | - | 1 | - | - | 1 |
| 3. E.B. | - | 2 | 2 | - | 4 |
| 4. E.B. | - | 2 | 1 | - | 3 |
| 5. E.B. | - | 1 | 1 | 3 | 5 |
| Ezinbesteko Baldintzak GUZTIRA<br>% IIT 2005 | -<br>- | 6<br>% 40 | 5<br>% 33 | 4<br>% 27 | 15<br>% 100 |
| % IIT 2004 | % 33 | % 20 | % 47 | - | % 100 |

## *Ezinbesteko 1. baldintza: Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea*

**Ezinbesteko 1. baldintzak** helburu hauek definitzen ditu:

- Jarduera politikoaren gidaritza eta koherentzia hobetzea
- Ingurumena politika sektorialetan (industria, energia, nekazaritza, garraioa, kontsumoa, turismoa...) sartzeko estrategiak garatzea.
- Administrazioaren jarrera eredugarria sustatzea.
- Administrazioaren plan eta programen ingurumen-ebaluazioa bultzatzea.
- Administrazio Publikoaren erosketetan ingurumen-irizpideak sartzea bultzatzea.
- Ingurumen-aldagaia sartzea lurzorua erosteko politiketan eta hirigintza-planetan (ekonomia- edota etxebizitza-jarduerak ezartzeko).
- EAEko ingurumen-sektorea sustatzea lege-esparru baten bidez; lege-esparru horrek ingurumen-eremuko enpresak sortzea erraztu beharko du.

61. Ezinbesteko 1. baldintzak 6 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | 1 | 3 | 4 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | 1 | - | 1 |
| 2006rako konpromisoak | - | - | - | 1 | 1 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 1. E.B. (2002-2006)** | **-** | **-** | **2** | **4** | **6** |
| **% IIT 2005** | | | **% 33** | **% 67** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | **% 33** | **% 17** | **% 50** | **% 100** |

62. Bestalde, ezinbesteko 1. baldintzan 2 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 1 | 1 | 2 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 1. E.B. (2002-2006)** | **-** | **-** | **1** | **1** | **2** |
| **% IIT 2005** | | **-** | **% 50** | **% 50** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 50** | **-** | **% 50** | **-** | **% 100** |

63. Ezinbesteko 1. baldintzaren esparruan, **ingurumen-aldagaiaren integrazioa** bide onetik doa, konpromiso guztiak fase aurreratuan edota gauzatuta baitaude.

64. Urrats garrantzitsua da, bestalde, ingurumenari buruzko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren aurrekontu-partida publikoen azterketaren sistematizazioa, **INGUMA/Q29** aplikazioaren bidez; aplikazio hori Sailaren **gastuaren azterketa ingurumenaren** ikuspegitik egiteko tresna da. Beste urrats garrantzitsu bat da **Tokiko Agenda 21en** prozesuen (190 udalerri daude jada prozesuan sartuta) garapena.

65. Era berean, Administrazioaren jarrera eredugarriari dagokionez, azpimarratzekoa da **Administrazio Publikoetan ingurumen-ziurtagiriak** lortzeko mekanismoak abian jartzen ari direla, bai Eusko Jaurlaritzan, bai foru- eta toki-erakundeetan.

## *Ezinbesteko 2. baldintza: Indarrean dauden legeak eta horien aplikazioa hobetzea*

**Ezinbesteko 2. baldintzak** helburu hauek definitzen ditu:

- Arauak garatzea eta horiek argiago eta errazago egitea sustatzea, ingurumen-araudia errazago aplikatzeko.
- Ingurumen-legedia heda dadin sustatzea (bai testu osoak bai eskuliburu praktikoak).
- Administrazioaren planetan jasotako legeak aplikatzeak dituen (eta ez aplikatzearen aukerak) kostuen azterketa egitea.
- Prebentzioko borondatezko tresnak (borondatezko hitzarmenak) eta legea betetzen laguntzen duten tresnak sustatzea.
- Fiskaltzak eta poliziak ingurumen-gaietan gehiago parte har dezan eta gehiago espezializa dadin sustatzea.
- Ingurumena kudeatzeko EMAS sistemaren bidez ingurumen-legeriaren ezarpena kontrola dadin sustatzea.
- Ingurumen-ebaluazio integratuko kontzeptuak kontuan hartzea eragile publiko eta pribatuek.
- Partaidetza publikoa sustatzen duten bide administratiboak areagotzea.

66. Ezinbesteko 2. baldintzak 15 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

## *Ezinbesteko 3. baldintza: Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea*

**Ezinbesteko 3. baldintzak** helburu hauek definitzen ditu:

- Irizpide ekologikoak kontuan hartzen dituen politikak bultzatzea erosketa publikoetarako.
- Ingurumen-xede berrietara bideratutako zerga-politika ezartzea.
- Lankidetzan aritzea enpresekin eta enpresa-erakundeekin.
- Ingurumen-arauditik harantzagoko ekintzak bultzatzen dituzten diru-laguntzen ildoak ezartzea.
- Ingurumenarekiko jarrera ona duten enpresak saritzeko sistemak sustatzea.
- Ingurumen-arriskuak dituzten prozesuak aseguratzea sustatzea, ingurumen-erantzukizunaren bidez.
- Ingurumena kudeatzeko sistemak, ingurumen-txostenak eta antzekoak bultzatzea.
- EAEn produktuari buruzko estrategia integratua ezartzea, ingurumena errespetatzen duten produktuen alde.
- Etiketa ekologikoaren eraginkortasunaren erabilera eta ebaluazioa sustatzea.
- Ingurumeneko jardunbide hobeak truka daitezen sustatzea.
- Berrikuntza- eta eraginkortasun-irizpideak politika sektorial guztietan sartzeko prozesua hobetzea.
- Ingurumen-arazoak konpontzeko, baliabide finantzarioak erabiltzea: lehentasun-kredituak, inbertsio-funtsak, arrisku kapitalak…
- Sektore pribatuan, erosketa-espezifikazioetan ingurumen-faktoreak sartzeko egiten diren ekimenak sustatzea.

72. Ezinbesteko 3. baldintzak 4 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hastek o | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | 1 | 1 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 1 | - | - | 1 |
| 2006rako konpromisoak | - | - | 1 | 1 | 2 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 3. E.B. (2002-2006)** | **-** | **1** | **1** | **2** | **4** |
| **% IIT 2005** | | **% 25** | **% 25** | **% 50** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | **% 75** | | **%25** | **% 100** |

73. Bestalde, ezinbesteko 3. baldintzan 4 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | 2 | 2 | - | 4 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 3. E.B. (2002-2006)** | **-** | **2** | **2** | **-** | **4** |
| **% IIT 2005** | **-** | **% 50** | **% 50** | **-** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **-** | **% 25** | **% 75** | **-** | **% 100** |

74. **Merkatu-tresnen** erabilerari dagokionez, industria-sektorearen parte-hartzea –aurreko puntuan azaldutako **ingurumeneko hitzarmen boluntarioen** bidez– positiboa da. Era berean, ingurumen-kudeaketako **ziurtatze**-sistema asko dagoela eta borondatezko ekimenak, kasurako, **iraunkortasun-txostenak,** egin direla kontuan izanda, 2006rako ezarritako helburuak lortzeko bidean gaudela ikusten

dugu. Bada, azken datuen arabera, 26 EMAS erregistro, 692 ziurtagiri ISO 14001, Ekoscan Arauaren 38 ziurtagiri eta 524 Ekoscan diploma eskuratu dira.

75. Bestalde, lanean ari gara, urrats txikiak eginez bada ere, **ingurumen-kostuak barneratzeko;** hainbat sailen diru-laguntzen politika aztertu da, haien irizpideak GIEIEren ildoekin bateratzeko. Hor sartzen dira Uren Kanona eta Hondakinak Isurtzeagatiko Tasa.

76. **Teknologia Garbien Euskal Zerrenda** egiteko lanak ere nabarmenak dira. 59 ingurumen-teknologia sartzen dira zerrenda horretan, eta % 30erainoko zerga-kenkariak izan ditzakete Sozietateen gaineko Zergan[6].

## *Ezinbesteko 4. baldintza: Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea eta beren jokabideak jasangarritasun handiagoari begira aldatzea*

**Ezinbesteko 4. baldintzak** helburu hauek definitzen ditu:

- Herritarrak informatzea, sentsibilizatzea eta haien parte-hartzea sustatzen duten Tokiko Agenda 21eko programak bultzatzea udalerrietan eta eskualdeetan.
- Ingurumen-hezkuntzako planak sustatzea hezkuntza-sisteman.
- Lanbide-heziketan (akademikoa nahiz lanekoa) eta unibertsitatean ingurumen-aldagaia sar dadin bultzatzea.
- Ingurumen-informazioko sistema bat ezartzea (datu-baseak, aplikazio informatikoak...), kalitatezko ingurumen-informazioa, eguneratua eta fidagarria eskainiko duena.
- Ingurumenari buruzko informazio fidagarria eta erraz eskuratzekoa emango duten komunikaziorako mekanismo eraginkorrak sortzea eta informazioaren teknologia berriak (Internet) sustatzea.
- Herritarrek parte hartzeko foro egonkorrak sustatzea.
- Herritarrek beren bizimoduaren errendimendu ekologikoa alderatu eta ebaluatzeko tresnak bultzatzea.
- Ingurumen-informazioa ekoizten duten eragileen artean ingurumen-informazioa, esperientziak, jardunbide egokiak eta abar trukatzeko sare egonkorrak ezar daitezen sustatzea.
- Garapen iraunkorraren printzipioak eta kultura transmititzeko eta horiei buruz sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.

77. Ezinbesteko 4. baldintzak 17 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | 2 | 1 | 2 | 4 | 9 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 2 | - | 1 | 3 |
| 2006rako konpromisoak | - | 2 | - | 1 | 3 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | 1 | 1 | 2 |
| **Konpromisoak guztira 4. E.B. (2002-2006)** | **2** | **5** | **3** | **7** | **17** |
| **% IIT 2005** | **% 12** | **% 29** | **% 18** | **% 41** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 18** | **% 35** | **% 18** | **% 29** | **% 100** |

78. Bestalde, ezinbesteko 4. baldintzan 3 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

[6] 2004ko maiatzaren 14an argitaratu zen EHAAn.

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak ☹ | Egin litezkeenak 😐 | Egin daitezkeenak ☺ | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | 2 | 1 | - | 3 |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 4. E.B. (2002-2006)** | **-** | **2** | **1** | **-** | **3** |
| **% IIT 2005** | | **% 66** | **% 33** | **-** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 33** | | **% 66** | **-** | **% 100** |

79. **Herritarrak gaitzeari** dagokionez, arrakastarik handiena Tokiko Agenda 21ak ugaritu izana da, EAEn 190 udalerri baino gehiago baitaude Tokiko Agenda 21eko prozesuetan. Nabarmentzekoa da, bestalde, prozesu hori hezkuntza-sektorera zabaldu izana: 130 ikastetxek (45.000 ikasle baino gehiago) Eskolako Agenda 21 dute, eta **mugikortasun iraunkorreko planak** egin dira udalerri eta eskualdeetan; dagoeneko, 4 eskualderi eta 40 udalerri baino gehiagori eragiten diete.

80. Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail eta sozietate publikok **informatzeko eta sentikortzeko** egiten duten ahaleginari esker, herritarrak gehiago kontzientziatzen ari dira, nahiz eta oraindik ere erronka den zuzenean herritarrengana iristeko formula berriak topatzea. Ingurumenaren alorrean herritarrak informatzeko eta komunikatzeko eta haiek parte hartzeko **estrategiaren** eta **ingurumen-hezkuntzaren** estrategiaren helburua –biak unean lantzen ari dira– EAEko gizartea informatzen eta mobilizatzen laguntzea da, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian identifikatutako xede handiak ezagutu eta bere egin ditzaten eta ingurumenaren aldetik iraunkorra den herria lortzeko aktiboki esku har dezaten.

81. Bi konpromiso hasteko daude oraindik, eta 2004a baino lehen hasi beharrekoak ziren:

- Hedabide publikoek "Ingurumen-informazio iraunkorraren aldeko konpromisoa" hitzartzea.
- Ingurumenean eragina duten programa, plan, proposamen eta Gobernuaren gainerako dokumentuen testuak eskuragarri jartzea euskarri informatikoan, diseinuaren eta garapenaren fase guztietan.

## *Ezinbesteko 5. baldintza: Ingurumenari buruzko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea*

**Ezinbesteko 5. baldintzak** helburu hauek definitzen ditu:

- Ingurumen-sistemaren eta gizakien osasunarekin duen loturaren gaineko jakintza sustatzea.
- Ekoizpen-sistemetan dauden teknologia onenak sartzea sustatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2001-2004" planaren esparruan, egungo iraunkortasun-estrategiari gehien laguntzen dioten azterketa-proiektuak sustatzea.

82. Ezinbesteko 5. baldintzak 3 konpromiso programatiko jasotzen ditu. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | 2 | - | 2 |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2006rako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | 1 | 1 |
| **Konpromisoak guztira 5. E.B. (2002-2006)** | **-** | **-** | **2** | **1** | **3** |
| **% IIT 2005** | | | **% 66** | **% 33** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | | **% 100** | | | **% 100** |

83. Bestalde, ezinbesteko 5. baldintzan 5 konpromiso kuantitatibo jasotzen dira. Hau da konpromiso horien egoera:

| Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | | | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | Zailak | Egin litezkeenak | Egin daitezkeenak | Daturik ez | |
| 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| 2004an iraungitako konpromisoak | - | 1 | 1 | 3 | 5 |
| 2006rako konpromisoak | - | - | - | - | - |
| Konpromiso jarraituak | - | - | - | - | - |
| **Konpromisoak guztira 5. E.B. (2002-2006)** | **-** | **1** | **1** | **3** | **5** |
| **% IIT 2005** | **-** | **% 20** | **% 20** | **% 60** | **% 100** |
| **% IIT 2004** | **% 60** | **% 20** | **% 20** | **-** | **% 100** |

84. Ingurumenari buruzko **Ikerketa, garapen teknologiko eta berrikuntzaren** alorrean, iaz bezala, **datu gutxi** dugu. 2004an, **Ekodiseinuaren Dokumentazio Zentroa/Produktuaren Ingurumen Berrikuntza** abiatzeari eta **Teknologia Garbien Euskal Zerrenda** hobetzeari lotutako ekintzak egin dira, eta ingurumen-diagnostikoa egin da ekipo-fabrikatzaileen sektorean.

85. Bestalde, ingurumenak EAEko biztanleengan duen eraginari buruzko ikerketa oso garrantzitsua denez, beharrezkoa da ikerketa-programak dinamismo handiz bultzatzea. Ikuspegi horretatik, nabarmena da **ozonoaren ondoriozko poluzioak osasunean duen eragina balioztatzeko** EAEko zenbait udalerritan hasitako lana.

86. Azkenik, azpimarra dezagun UNESCOk 2004an ofizialki aintzatetsi izana EHUko **Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra Urdaibai Biosfera Erreserbaren esparruan** –ikerketa eta hezkuntza espezializatuko unitatea–, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak babestua. Katedra horrek EAE osoari eskainiko dizkio bere zerbitzuak, eta lankidetzan arituko da mundu osoan banatutako UNESCO katedra guztiekin.

## *Aurreko txostenetako aholkuen betetze-maila*

87. Lorpenak nahi baino txikiagoak izan diren arren, aurreko iraunkortasun-txostenetako ondorio eta gomendioak jarraitu ditu Gobernuak. Aurreko erronka eta gomendioek indarrean jarraitzen dute 2005erako ere, egitura-aldaketa handiak baititugu.

88. Helburuak betetzeko **segimendu- eta ebaluazio-mekanismoetan sakontzeko** beharra adierazten du lehenengo ondorioak. Argitaratutako txostenak eta proposatutako hobekuntzak gorabehera, konpromiso batzuk atzeratzea eragiten duten arrazoiak nabarmenduko duten atzeraelikadurako mekanismoak falta dira. Eta ingurumenari buruzko informazio-sisteman egin diren hobekuntzak gorabehera, konpromiso kuantitatibo batzuetarako, oraindik ez dira definitu ebaluatu ahal izateko beharrezkoak diren adierazleak.

89. 2003ko txostenaren bigarren ondorioa bat dator hurrengo urteko txostenean ezarritako lehenengo **erronkarekin,** eta, hain zuzen, **hazkunde ekonomikoaren eta baliabide naturalen erabileraren arteko bereizketa** lortzeko bidean aurrera egiteari buruzkoa da[7]. Txostenean adierazi dugun moduan, arlo horretako emaitzak gazi-gozoak dira: baliabide naturalen erabilera gero eta eraginkorragoa den arren, **kontsumo orokorra hazten ari da,** bai MBT adierazlea kontuan hartuta bai *aztarna ekologikoa* kontuan hartuta[8]. Berdin gertatzen da garraio-fluxuen eta hondakinen sorrerarekin, hazkunde ekonomikoarekin batera hazten baitira. Horrenbestez, **ez dago bereizketa- edota desmaterializatze-zantzurik.** Onartu behar dugu epe handiagoak behar direla hobekuntza nabariak lortzeko, baina, nabarmendu behar dugu, bestalde, ez dagoela pozik egoteko ebidentziarik, hurrengo esparru programarako gogoeta gisa.

90. Gogoeta hori 2004ko txosteneko **merkatuko bitartekoak sustatzea** erronkarekin lotzen da. Aurrerakuntzak ahulak dira, besteak beste: Uren Legearen proiektuan –ez zen aurrera atera– proposatutako kanona, uraren prezioan ingurumen-kudeaketaren kostua sartzeko helburua zuena; Teknologia Garbien Zerrenda, % 30 bitarteko zerga-kenkariak ahalbidetzen dituena; eta hondakinak isurtzeagatiko tasa. Bestalde, asmo handiagoko proiektuak lantzen ari dira, kasurako, fiskalitate berdea, baina oraindik hasierako azterketen fasean daude. Gertaera garrantzitsu gisa, **ekodiseinuari buruzko UNE-150.301** onartu izana eta Kontsumo Planaren zirriborroan jasotako **ekoetiketaren** proposamena ditugu.

91. 2003ko hirugarren ondorioa politika sektorialetan ingurumen-iraunkortasuna **kontuan hartzeko prozesua sakontzearen** beharrari buruzkoa zen. Aurrera egin da arlo horretan, izan ere, IIEB aplikatu da (lurralde-plan partzialetan eta lurralde-plan sektorialetan) eta iraunkortasun-printzipioak aplikatu dira 2004an onartutako politiketan; politika horiek 2005ean ari dira lantzen, kasurako, **Euskadiko Energia Estrategia 2010** edota **Industria, Merkataritza eta Turismoaren Lehiakortasun Planean** aurrera egitea.

92. Gomendio horri lotuta, azken txostenean nabarmendutako bi erronka garrantzitsu daude: batetik, **mugikortasun-eskaria bideratzea eta garraiobide iraunkorrak garatzeko** beharra, eta, bestetik, **lur hiritargarriaren okupazioa mugatzea.**

93. Lehenengo puntuari dagokionez, garraiobide alternatiboen alorrean, oso motel ari gara aurrera egiten: Administrazio zentralarekin trenbide-azpiegitura berriari (EAEko

---

[7] 1990-2002 aldian, materialen guztizko kontsumoa % 27 igo zen : 1990ean, 75 tona kontsumitzen zen biztanle bakoitzeko; 2002an, 96 tona. Hala eta guztiz ere, azkeneko bi urteotan egonkortu egin da materialen kontsumoa.

[8] Planetako biztanle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen kontsumo-joera berei jarraituz gero, produkzio biologikorako planetaren azalerak 2,5 aldiz handiagoa izan beharko luke.

Y) eta hegoaldeko trenbide-saihesbideari buruzko akordio bat lortu bitartean, beste proiektu batzuk ez dira plan zehatzetan gauzatuko. Trenbide-egitura horien bidez, gure lurraldean merkantziak errepidez garraiatzeko izaten den zirkulazioaren zati handi bat ezabatuko litzateke

94. Aitzitik, aurrerapen garrantzitsuak egiten ari dira mugikortasun-eskaria kudeatzeko planetan. Eskualdeko bost azterketa daude martxan Gipuzkoan eta udalerri batzuetan. Horrenbestez, lehen emaitzak 2005a amaitu baino lehen jasotzea espero da.

95. Bigarren puntuari dagokionez, lanean ari dira hiritartu gabeko lurraren okupazioa mugatzeko. Jarrera hori udalek ez dute beti ondo hartzen, eta gatazkak (bidezkoak dira, baina eztabaidagarriak ere bai) sortzen dira; ondorioz, hedapenaren, porlanaren eta asfaltoaren politikak sustatzen dira oraindik.

96. 2003ko laugarren ondorioak **herritarren konpromiso handiagoa** lortzeko beharra azpimarratzen du; horretarako, komunikazio-sistemak eta herritarrak mobilizatzekoak hobetzea eta gardentasuna, koherentzia, eraginkortasuna, kontrola eta parte-hartze publikoa areagotuko duten gobernu-era berriak ezartzeko beharra azaltzen du. Ildo berean, 2004an adierazi zen **gobernu-sistemak** hobetu behar zirela. Gobernuak, erronka hori aintzat hartuta, herritarrek ingurumen-gaietan parte hartzeko proiektu bat prestatu du, eta **partaidetzaren behatoki** bat sortu du, oraindik onartzeke dagoena. Eskolako Agenda 21ek inplikazio hori gazteen hezkuntzan sustatzeko ahalegina egiten du.

## *2006rako erronkak: 2006-2010eko Ingurumeneko bigarren Esparru Programarantz*

97. 2004ko txostenean jaso zenez, gizarteak onartu du ingurumen-iraunkortasuna lortzeko **ez dela nahikoa ingurumen-kudeaketa hutsa:** ekoizpen- eta kontsumo-ereduak goitik behera aldatu behar dira, eta aldaketek tresna egokien bidez etorri behar dute.

    2006an amaitzen da GIEIEren lehenengo zikloa, orduan amaituko baita Ingurumeneko lehenengo Esparru Programa. Ondoren, 2006-2010 aldirako programa hasiko da. Bien bitartean, Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia moldatzen ari da Europako Batzordea, lehenengo zikloa amaitu ostean. Bi kasuetan, ziur daude[9] **xede eta helburuak berdinak izango direla,** eta, badakite, horiek lortzeko, tresna eta ekintza eraginkorragoak identifikatu eta aplikatu behar direla.

98. Interesgarria da **Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan** 2005eko apirilean egindako ekarpenak jasotzea; Europako Estrategian *interesatutako eragileen* ia 200 ordezkariren iritziz, Estrategiak kontuan izan beharreko 50 gaiko zerrenda batetik, hauek dira bost garrantzitsuenak:

    - Energia-estrategia iraunkor bat garatzea.
    - Eraginen ebaluazioak garapen iraunkorrerako tresna gisa erabiltzea.
    - Europako Estrategian sartutako gizarte-alderdien tratamendua hobetzea: pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka eta biztanleria gero eta zaharragoa izatearen aurka borrokatzea.
    - Baliabide naturalak modu iraunkorrean erabiltzea.
    - Nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa eta garapen iraunkorra bateratzea.

    Bost puntu horietatik hurbil dago komunikazio-tresna egokiak erabiltzeko beharra, herritarrei, mezu katastrofistak alde batera utzita, jokoan dauden gaien benetako edukia helaraziko dizkietenak, iraunkortasunaren irizpidearekin berarekin hasita.

99. Gure 2006-2010eko Ingurumeneko Esparru Programa berriz formulatzeaz ari garela, erronka batzuk aurrera daitezke, batetik, formaren eta **prozeduraren** ingurukoak, eta, bestetik, ekintza-**lehentasunei** buruzkoak.

100. Prozedura-lehentasunen artean dugu, hasteko, lantze-prozesuko aitzindaritza eta gardentasuna areagotzeko beharra, eta modu eraginkor eta **irekiagoan** parte hartu beharko dute gizarte-eragileek. Batzorde eta foro irekietako lanetan bildutako esperientziari esker, sistema parte-hartzaile eta bizkorragoak ezar daitezkeela ikusi da, eta gizarte-eragileek kontsulta-mekanismo formalizatuen prozesuetan zuzenean parte hartzeko beharra egiaztatu da.

101. Bestetik, konpromisoak gehiago zehaztu eta hierarkizatu behar dira. Helburu kuantitatibo gehiago ezarri behar da, eta helburu eta tresnen artikulazioa barne hartzen duen garapena behar da; gauzatze-epeak bermatuko dituzten kostu ekonomikoak aurreikusi behar dira, eta proposamenen eragin ekonomiko eta sozialen lehenengo balioespena egin behar da.

102. Ekintza-**lehentasunei** dagokienez, eta xedeak ia berdinak izango direla jakinda, nabarmendu beharreko gai batzuk aipatuko ditugu:

    a) **Klima-aldaketaren** aurka borrokatzeko plan espezifiko bat garatzea: energiaren, garraioaren, industriaren, hondakinen, etxebizitzen eta zerbitzuen

[9] Europako Batzordeak hala adierazi zuen otsailaren 9ko Komunikazioan.

eremuko jarduerak egitea eskatzen du. Horietatik, industriak bakarrik murriztu ditu emisioak 1990etik hona.

b) Lehentasun handia ematea mugikortasunaren kudeaketari eta garraiobide iraunkorren garapenari, hartara, **ibilgailu pribatua** gutxiago erabili eta garraiobide iraunkorrak gehiago erabiltzeko. Izan ere, ibilgailu pribatuek eragina dute **poluzio** atmosferikoan, **zarata** sortzen dute, zirkulazio-**pilaketak** eragiten dituzte eta oro har segurtasunean eragiten dute.

c) Aurreko puntuarekin lotuta, ahaleginak egin behar dira **planeamendu** sektorialak eta lurraldekoak eta **garraio-**politikak **koordinatzeko.** Hartara, planifikazioaren bidez, mugikortasun-eskaera murriztu eta hirietako egitura *intentsiboagoa* bultzatu nahi da.

d) **Hiritartu gabeko lurraren okupazioa** mugatzea, azpiegitura eta etxebizitzen eskariak kudeatuta –lurzoru berrien okupazioa ahalik eta gehien mugatzeko–, eta hiri eta herrietako barruko eremuak berreskuratzea, hiriguneen zabalkunde fisikoa geldiarazteko.

e) Herritarrak kontsumitzaile gisa aintzat hartzea, eta **kontsumo iraunkorraren** bidean aurrera egiteko jarduerak egitea.

f) **Hazkunde ekonomikoa eta baliabide naturalen kontsumoa bereizteko** prozesuan aurrera egitea, eta Estrategiaren arrakastarako giltzarri bihurtzea.

g) Kostuak barneratuko dituzten **merkatu-bitartekoak** garatzea; kontsumo- eta ekoizpen-urratsak aldatuko dituzte merkatutik, eta bereziki zainduko da fiskalitate berdea.

h) Teknologia garbien eta gizarte-berrikuntzen **azterketa,** garapena eta berrikuntza sustatzea.

i) **Erakundeen arteko koordinazioan** eta integrazioan aurrera egitea iraunkortasun-estrategian, estrategia egiten den unetik beretik.

j) **Osoko informazio**-sistemetan aurrera egitea, iraunkortasun-adierazleak garatuta eta gizartea informatzeko **komunikazio-**estrategia babestuta.

k) Ingurumen-iraunkortasuneko faktoreak **gizarte-** eta **ekonomia-** iraunkortasunarekin **integratzea.**

# *Azken oharrak*

103. Azken ohar hauek egin nahi ditugu, ondorio gisa:

***Lehena:*** legealdia amaituta dagoela, ikusi da asko aurreratu dela GIEIEn (duela hiru urte sartu zen indarrean) ezarritako konpromiso programatiko eta kuantitatiboak betetzen. Baina helburuak urruti daude oraindik.

***Bigarrena***: EAEko ingurumenaren egoera zertxobait hobetu bada ere, ez gara aurrerapauso nabarmenik ematen ari ekonomiaren desmaterializazioan edo kontsumo-mailaren murrizketan (energia, ura, baliabide naturalak, lurzorua), ez eta hondakinen murrizketan ere.

***Hirugarrena:*** Airearen kalitatea hobetzeko helburuak ere ez du aurrera egin. Industrian eta garraio kolektiboan egindako aurrerakuntzak gorabehera, gero eta emisio gehiago egiten da atmosferara. Garraioa –hirigintza-planifikazioaren laguntzarekin– ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu beharreko arlo nagusia da, garraiobideetan oreka lortu ahal izateko eta ingurumenari kalte gutxien eragiten dieten garraiobideen alde egiteko.

***Laugarrena***: 2005ean hasi dira bigarren Esparru Programa prestatzeko lanak. Orain arteko esperientziak asmo handiagoko helburuak proposatzea ahalbidetu behar digu, aldaketak azkarrago egin ahal izateko: (i) herritarren, gizarte-eragileen eta Administrazio publikoen **partaidetza** gehitzea estrategiak **egiteko** prozesuetan; (ii) **helburu konprometituagoak** ezarri, tresna eta lanerako modu espezifikoak identifikatu eta kostu eta baliabideak zenbatestea; (iii) **euskal ingurumen estrategia** integratzea Gobernuaren iraunkortasun-estrategia orokorrean (iraunkortasuna, lehiakortasun ekonomikoa eta gizarte-iraunkortasuna) eta alderantziz, deklarazio programatikoetatik harantzago, ***hitzetatik ekintzetara igarota;*** (iv) **berrikuntza teknologikoa eta soziala eta merkatu-bitartekoen erabilera** sustatzea; eta (v) **informazioaren** sorrera eta hedatzea sustatzea, herritarren konpromisoa areagotzeko.

***Bosgarrena***: Ingurumena zaintzea eta iraunkortasuna sustatzea ez dira gizakien garapenerako mugak, bizi-kalitatea betiko hobetzeko aukera paregabeak baizik. Beraz, negozio-aukera berriak eskaintzen dituzte eta sustatu egin behar dira, horretarako inguru egokia sortuz. Lan horretan, zeresan handia dute Administrazio Publikoek, batetik, gaur egun sustatzeko dauden baliabideak zuhurtziaz erabiltzeko eta, bestetik, herritarrekiko konplizitatea ezartzeko, akordio eta hitzarmen sinesgarriak eginez informazioaren, gardentasunaren eta erabakitzeko prozesuetan parte hartzearen bidez.

# *I. GEHIGARRIA: GIEIE-KO KONPROMISOEN BETETZE-MAILA ADIERAZTEN DUTEN KOADROAK*

## 1. XEDEko konpromisoen ebaluazioa

### 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak.

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 1X03K | Emisio poluitzaileen Europako inbentarioko (EPER) poluitzaileen kontrolerako eta prebentziorako estrategia industria-sektorean. | | | X | | Prebentziorako eta kontrolerako estrategia informazioa aztertzeko fasean dago. Erredaktatu gabe dago.<br>E-PRTR eta borondatezko hitzarmenak dituzten enpresei laguntzeko proiektuak kontratatu dira. |
| 1X04K | Behe-maiztasuneko (50 Hz) eremu elektromagnetikoen eta irrati-maiztasunen esposizio-mailen gutxi gorabeherako azterketa eta haiek murrizteko plana egitea | X | | | | |
| 1X14K | Poluitzaile atmosferikoen immisioaren muga-balioak edo alerta-atalaseak gainditzeko arriskua murrizteko planak egitea. | | X | | | 2003 eta 2004ko Airearen Kalitatearen Ebaluazioa egin da. Ebaluazio horietatik ondorioztatu da ekintza-planak egin behar direla EAEko 13 udalerritan, 1073/2002 Errege Dekretuko 6. artikuluaren arabera. Ekintza plan horiek egiteko laguntza teknikoa esleitzeko lehiaketa atera da. |

### 2004an iraungitako konpromisoak.

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 1X05K | Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioari buruzko azterketa-diagnostikoa | | | X | | 2005ean amaitzea aurreikusten da. |
| 1X05K | Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioa murrizteko estrategia | | | X | | 2005ean amaitzea aurreikusten da. |
| 1X08K | Produktuetan ingurumen-irizpideak erabiltzea sustatzeko programa (Bizi-zikloaren Analisia). | | | | ✔ | Euskal Autonomia Erkidegoan Ekodiseinua - Produktuen Ingurumen Berrikuntza Sustatzeko 2004-2006 Programa jendaurrean aurkeztu zen 2004ko Aste Berdean. |
| 1X11K | Iturri finkoetatik sortutako partikula-emisioen inbentarioa eta kontrol-estrategia bat egitea. | | | | ✔ | |
| 1X12K | Airearen Kalitatea Zaintzeko Sarearen datuak Internet bidez jakinaraztea. | | | | ✔ | |
| 1X13K | $NO_x$, $NH_3$ eta CO emisioei buruzko inbentarioa eta | | | X | | -Inbentarioa amaitu da.<br>-Murrizteko estrategien |

| | **Konpromiso PROGRAMATIKOAK** | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | emisio horiek kontrolatzeko estrategia egitea. | | | | | dokumentua egin da (2005ean argitaratuta). |
| 1X16K | Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa | | X | | | -Otsailaren 18an 33/2003 DEKRETUA argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua sortzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa izapidetzeko prozedura arautzen du –behin betiko gauzatu baino lehenagoko fasea–. -Plan Hidrologikoa egiteko behar den dokumentazioa prestatzen ari dira. |
| 1X20K | Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana | | X | | | -Eztabaida estrategikoa egin da eskaria eskaeraren azterketan lortutako datuetan oinarrituta. -Lurzoru Poluituen Planaren lehenengo zirriborroa egin da. -Parte hartzen duten eragileekin plana eztabaidatzeko estrategia bat diseinatzea. |
| 1X21K | EAEko Lurzoru Poluituen Legea | | | | ☑ | Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzoruaren poluzioa, lurzorua ez kutsatzekoa eta kutsatukoa garbitzekoa. |
| X122K | Higadurak lurralde osoan duen garrantzia zehatz-mehatz ezagutzea. | | | X | | Lanak atzeratu dira. Aurreikuspenen arabera, 2005eko ekainean amaituko dira. |

## 2006an hartu beharreko konpromisoak

| | **Konpromiso PROGRAMATIKOAK** | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 1X07K | Substantzia arriskutsu nagusiak ordezkatzeko estrategia | | | X | | Substantzia Arriskutsu Nagusiak Ordezkatzeko Estrategiaren proposamen metodologikoa egin da, Europako jardunbide egokietan oinarrituta eta Europako Batzordearen ildoekin bat, eta substantzien hasierako priorizazioa egin da. |
| 1X15K | 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, airearen kalitatearen berri ematen duten informazio-panelak jartzea eta udalerrietan beste hainbat informazio-tresna erabiltzea. | | X | | | |
| 1X17K | 2.000 biztanletik gorako herrietan saneamendu-azpiegiturak izatea 2006rako. | | | X | | 2004an, saneamendu- eta arazte-azpiegiturak sustatu eta finantzatzeko jarduerak egin ziren; horien bidez, EAEko biztanleriaren % 90i ematen zaie zerbitzua. |
| 1X23K | EAEko higadura kontrolatzeko eta prebenitzeko plana egitea eta higadura-prozesuek kaltetutako eremuak konpontzea. | | X | | | Nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuko neurri gehiago hartu da, higatzeko arriskua duten laborantza-lurretako lurzoruak babesteko. |
| 1X25K | Ingurumenean luze irauten duten substantzia kimikoen esposizioak, | | | X | | 2004ko Dieta Osoaren azterketarekin jarraitu da. |

| | **Konpromiso PROGRAMATIKOAK** | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | dietaren bidez hartuta, osasunerako duten arriskua balorizatzeko sistema. | | | | | |
| 1X27K | Eragin handiena duten elikagaien toxiinfekzioen prebentzio eta kontrolerako plan integrala martxan jartzea, produkzio primariotik hasi eta kontsumitzaileraino | | X | | | -Elikagaien laginak jaso dira.<br>-Campylobacter eta salmonella bakterioek eragindako kontaminazioaren azterketa integrala egin da. |
| 1X28K | Gizakientzako elikagaien etiketatzea ezartzea; horniketan erabilitako ekoizpen-modua adierazi beharko du. | | | | ☑ | -Nekazaritzako elikagaien kalitatearen gaineko 175 azterketa.<br>-Produktuen 20 lagin aztertu dira 8 elikagai-industriatan, transgenikoen etiketatzeak egokiak diren aztertzeko.<br>-Nekazaritza ekologikoko operadore guztiei gutxienez bisita bat egin zaie. |

| | **Konpromiso KUANTITATIBOAK** | **Lortzeko aurreikuspena** | Oharrak |
|---|---|---|---|
| 1X06K | 2006rako, ingurumena eta nekazaritza bateratzen dituen 55.000 hektareako azalera lortzeko aukera emango duten ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak sustatzea eta lurralde mailako politika espezifikoak ezartzea. (4. xedean ere jasota dago konpromiso hau). | ☺ | Ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak aplikatu zaizkien lurren azalera % 50 hazi da, iazko datuekin alderatuta. Onuraduren kopurua ere % 42 handitu da, 2003ko datuekin alderatuta. |
| 1X18K | EAEn ibilgu publikoetara eta lurraren eta itsasoaren arteko eremuetara botatako poluitzaile-karga totalak 2006an, 2001ekin alderatuta, % 50 murriztea (% 60 Gipuzkoan; % 50 Bizkaian; % 20 Araban). | ☺ | 2004ko adierazleak: "Zn, Cu, P % 50 baino gutxiago duten karga poluitzaileak". |
| 1X24K | 2006rako EAEko poluitutako lurzoru publikoen % 20 berreskuratzea, 2001. urtea oinarritzat hartuz. | ☺ | -Poluituta egon daitezkeen jabetza publikoko 10 toki/eremu aztertu dira.<br>-2 lurzoru poluitu berreskuratu dira. |

## Konpromiso jarraituak

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 1X09K | Laneko arriskuen prebentzioa, higiene industriala eta ingurumena aintzat hartzen dituzten kudeaketa-sistemak bultzatzea. | | | X | | -Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Industrientzako Programa 2003-2006 egin da.<br>Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema ezartzeko diru-laguntzak eman dira. |
| 1X19K | Lurzoru poluitu bati erabilera bat esleitzen denean, hirigintza-kudeaketaren eremuan sartutako lurzoru osoari ingurumenaren aldetik irtenbide egokia ematea. | | | | ☑ | 200an ekintza/jarduera hauek egin dira: -200 txosten tekniko udalerrietarako eta bestelako administrazioetarako;<br>-Lurzoruak aztertzeko gomendioak egin dira. |
| 1X26K | Hausnarkariak elikatzeko abere-irinak erabiltzea behin betiko galarazita egongo direla zaintzea | | | | ☑ | |

| | Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | Oharrak |
|---|---|---|---|
| X101K | Substantzia arriskutsuen ekoizpena, erabilera, emisioak eta isurketak ezabatzea, nazioarteko zientzia-komunitateak erabaki eta Europako araudietan txertatu ahala. | ☺ | -Sektorekako borondatezko hitzarmenak sinatu dira.<br>-IPPC Legeak eragiten dien enpresei laguntza teknikoa eman zaie, EPER/EPRTR zerrendan jasotako substantzia arriskutsuen emisio eta isuriak kalkulatzeko.<br>-Teknologia Garbien Euskal Zerrenda abian jarri eta kudeatu da; zerga-kenkariak aplikatzen ditu EAEko Ogasunean. |
| 1X02K | Baso-azalerari eustea eta/edo handitzea, airea arazteko, uraren erregimen hidrologikorako eta higadura kontrolatzeko eragiten dituen onurengatik. | ☺ | -Hitzarmenak sinatu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Forestalisten Konfederazioarekin eta USSErekin (Europako hegoaldeko basozaleen batasuna), basoak birlandatzeko eta baso-kudeaketa iraunkorreko politikaren laguntza gisa. 28.000 hektareatan baso-kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria lortu da. |
| 1X10K | Europako Batasunak inguruneko airearen (immisioa) kalitateari buruz ezarritako helburuak betetzea. | ☹ | 2004ko adierazleak: "2003an, airearen kalitateak okerrera egin du EAEn: 2001ean eta 2002an, 2,9 eta 2,6 egunetan, hurrenez hurren, atzeman zuten airearen kalitatea txarra edo oso txarra zela"; 2003an, berriz, 9,9 egunetan. |

## 2. XEDEko konpromisoen ebaluazioa

## 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak.

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2X05K | 2002: Energia berriztagarria sortzeko hainbat instalaziotatik datorren elektrizitatea sarera konektatzeko bideak jartzea. | | | | ✓ | |
| 2X07K | 2003: Kostu guztiak barne hartzen dituen uraren merkatu-prezioa proposatzea, eta kontsumo txikienak laguntzea eta kontsumo handienak zigortzea. | | | X | | Konpromisoan adierazitako printzipio beren arabera ezartzen du uraren lege-proiektuak uraren erregimen ekonomiko-finantzarioa. |
| 2X08K | 2003tik aurrera: ura aurreztu beharraz herritarrak kontzientziatzeko kanpainak egitea alor guztietan. | | | | ✓ | 2004an bete da:<br>- 'Ingurumena' kanpaina komunikabideetan;<br>- 2004ko 'Aztarna ekologikoa' kanpaina. |
| 2X15K | 2002: Hondakin Arriskutsuen Plana eta sortzen ari diren korronteak (bizitza baliagarria amaitutako ibilgailuak, eraikuntza eta tresna elektrikoak eta elektronikoak). | | | | ✓ | Plana prestatu da. |
| 2X20K | 2003: Industria eta Merkataritza Jatorriko Hondakin Ez-arriskutsuen | | | X | | |

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| | Plana. | | | | | |
| 2X21K | 2003: Osasun-jarduerek sortutako hondakinak kudeatzea horiek sortzen dituzten zentro guztietan, kudeaketa aurreratuaren printzipioen arabera. | | | **X** | | Ospitale handi gehienek kudeaketa-planak dituzte dagoeneko. Aurrerapausoak ematen ari dira eskualdeko zentro publikoetan eta zentro pribatu batzuetan (adib. odontologia-kliniketan). |

## 2004an iraungitako konpromisoak.

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2X10K | Herri-lanetan eta azpiegituretan material birziklatuak erabiltzea sustatzeko politika martxan jartzea. | | | **X** | | |
| 2X14K | Etxeetako olio erabiliak (jatekoak) bereizita jasotzeko zerbitzua antolatzea 30.000 biztanletik gorako udalerrietan. | | **X** | | | Tokiko erakundeei diru-laguntzak ematen zaizkie hondakinak gaika biltzeko eta balorizatzeko esperientziak egin ditzaten. |
| 2X22K | Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana. | | | **X** | | |

## 2006an hartu beharreko konpromisoak

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | **Egoera** | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2X11K | Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-hondakinen Plana | | | **X** | | Hiri-hondakinen kudeaketaren plangintza egiteko arauak eta EAEko Hiri-hondakinen Inbentario Historikoa egin dira. |

| | Konpromiso KUANTITATIBOAK | **Lortzeko aurreikuspena** | Oharrak |
|---|---|---|---|
| 2X02K | Per capita Material Behar Totala (MBT) 1998ko mailan mantentzea 2006an. | ☹ | 2004ko adierazleak: "1990etik 2002ra, handitu egin da MBT; 2001etik 2002ra, aldiz, egonkortu (96 t)". |
| 2X09K | 2006rako, aurretik tratatu ez diren hondakinik ez isurtzea, salbuespen honekin: teknikoki bideraezinak diren tratamenduak behar dituzten hondakin geldoak eta hondakin-kantitatea edo gizon-emakumeentzat nahiz ingurumenentzat | ☺ | - Arauak eta Hondakin Ez-arriskutsuen Plana prestatu dira.<br>- Inbentario bateratuaren % 60 bete da.<br>- Esparru-ildoak idatzi dira.<br>- Hondakin Ez-arriskutsuen |

| | Konpromiso KUANTITATIBOAK | **Lortzeko aurreikuspena** | Oharrak |
|---|---|---|---|
| | dituzten arriskuak murrizten laguntzen ez duten tratamenduak behar dituzten hondakinak. | | Plana<br>- Hauen % 60:<br>- Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen inbentario bateratua.<br>- Hondakin ez-arriskutsuei buruzko lekualdatze elektronikoaren diseinua. |
| 2X12K | Hiri-hondakinen arriskugarritasuna murriztea, etxeetako hondakin arriskutsuen gaikako bilketa areagotuz, 2006rako, pila-zatien, berunezko bateriaren eta lanpara fluoreszenteen kantitatea 900, 5.000 eta 130 t/urte izan dadin, hurrenez hurren. | ☺ | Aurrerapausoak eman dira, eta helburua erdietsiko dela aurreikusten da. |
| 2X13K | 2006rako, % 75eraino murriztea zabortegira eramaten den hiri-hondakinen kantitatea. | ☺ | 2004ko adierazleak: "2003an, hiri-hondakinen % 63 utzi zen hondakindegietan, hau da, % 75 baino gutxiago". Konpromisoa bete da. |
| 2X16K | 2006rako, hondakin arriskutsuen sorkuntza 2000ko kantitateetan egonkortzea. | 😐 | 2004ko adierazleak: "2002an, 335.634 tona hondakin arriskutsu sortu ziren". Hau da, 2000ko kantitatea (321.415 t) baino % 4 gehiago. |
| 2X17K | 2006rako, hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 50 handiagotzea, 2000ko datuen aldean. | ☺ | 2004ko adierazleak: "2003an, sortutako hondakin arriskutsuen % 47 balorizatu zen". |
| 2X18K | 2006. urtean etxetresna elektrikoen eta elektronikoen hondakinen 8.400 tona biltzea eta gutxienez tresna bakoitzaren guztizko pisuaren % 70-80 berreskuratzea. | ☺ | Asko aurreratu da lerro grisean eta marroian. Hozkailuak tratatzeko instalazio berriari emango zaion bultzadari esker, helburua erdiets daitekeela uste da. |
| 2X19K | 2006. urtetik aurrera, EAEn baja emandako ibilgailu guztiak deskontaminatzen hastea. Horretarako, berriz erabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea areagotu behar dira, Europako araudiak finkatutako ehunekoetan. | ☺ | - Jardueren fiskalizazioa eta kontrola egin dute IETZek.<br>- Europako araudian aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren egiaztatu da, eta banaketa orekatua sustatu da EAEko tratamendu-zentroetan. |
| 2X23K | 2006. urterako, baloriza daitezkeen altzairutegietako zepen % 50 balorizatzea. | ☹ | 2006an, % 10 errepideetan erabiliko dela aurreikusten da. |
| 2X24K | 2006rako, EAEn sortutako eraikuntza-hondakinen % 60, gutxienez, berrerabiltzea edo birziklatzea. Hondakin horietatik arriskutsuak diren hondakinen % 90 behar bezala bereiziko eta kudeatuko da. | ☹ | Gaur egun, helburutik urrun gaude, baina helburua lortzeko beharrezko mekanismoak martxan jartzen ari dira, atzerapenarekin bada ere. BTBren instalazioa martxan dago, eta Bilbo Handian beste instalazio bat jartzea aurreikusi da. |
| 2X25K | Bilgarriei eta bilgarri-hondakinei dagokienez, 2006. urtean helburu hauek erdiestea:<br>% 60-75 balorizatzea;<br>pisuaren % 55-70, beiraren % 60, paperaren eta kartoiaren % 55, metalen % 50, plastikoen % 20 birziklatzea. | 😐 | Beirazko eta metalezko ontziei buruzko helburuak betetzear daude. Alabaina, denbora gehiago beharko da paperezko, kartoizko eta plastikozko bilgarriei buruzkoak erdiesteko. |

## Konpromiso jarraituak

| | Konpromiso PROGRAMATIKOAK | Egoera | | | | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Hasteko | Hasita | Aurrer. | Buka. | |
| 2X01K | Parte hartzen duten sektoreak sentsibilizatzeko kanpainak egitea aldian-aldian, baliabideen kontsumoa eta hondakin-sorkuntza murrizteko. | | | | ✓ | Urtero egiten da. |
| 2X06K | 2002tik aurrera: Emari ekologikoa kontuan hartzen ez duten ustiategi hidrauliko berriak debekatzea. | | | | ✓ | Plangintza Hidrologikoko Bulegoak lur gaineko uren ustiapenari buruz 2002tik aurrera egindako txostenetan, emari ekologikoaren klausula eta emaria neurtzeko sistemak instalatzeko eskaera sartzen dira. |

| | Konpromiso KUANTITATIBOAK | Lortzeko aurreikuspena | Oharrak |
|---|---|---|---|
| 2X03K | Lurzoruaren kontsumoa galaraztea dentsitate baxuko garapena sustatuta, eraikuntza-dentsitate altuagoak sartuta lurzoru egokienetan, lurralde-antolamenduko tresnen arabera. | 😐 | EAEko Lurralde Antolamenduko Batzordearen txostenen bidez esku hartzen da, planen azterketa-txostenak edo horien aldaketak bideratzen direnean. Hirigintza Lege Orokorraren aurreproiektuan, etorkizunean bizitokiak eraikitzeko erabiliko diren lurzoruetan udalerri jakin batzuk eraikuntza-intentsitatea ezartzera behartzeko proposamena adierazten da. |
| 2X04K | EAEn ekoitzitako landare-olioekin egindako lubrifikatzaileen ehunekoa gehitzea. | | **EBALUATZEKE DAGO** |

## 3. XEDEko konpromisoen ebaluazioa

## 2004a baino lehen iraungitako konpromisoak.

